

Erlijioa:islama

Musulmanen erlijioa **islama** da eta Arabian sortu zen. Herrialde hartan, VII. mendean, **Mahoma** jainko bakar baten existentzia aldarrikatzen hasi zen, **Alarena** hain zuzen. Alaren doktrina **Koranean** (musulmanen liburu sakratuan) bilduta dago.



Musulman guztiek derrigorrezko **bost betebeharrak** dituzte:

- Ala jainko bakartzat onartu behar dute, eta Mahoma haren profetatzat.
- Egunean bost aldiz egin behar dute otoitz.
- Gutxienez bizitzan behin, Mekara erromesaldia egin behar dute.
- Ramadan hilabetearen barau egin behar dute.
- Behartsuei limosna eman behar diete.



Musulmanak **meskitara** joaten dira otoitz egitera eta beren erlijioaren oinarriak ikastera.

Gizartea

Al Andaluseko gizartea hainbat erlijiotako pertsonen osatzen zuten.

- **Musulmanak** talde boteretsuena zen. Gobernu-karguak betetzen zituzten eta lur onenen jabeak ziren.
- **Muladiak** erlijio musulmanera bihurtu ziren kristauak ziren.
- **Mozarabiak** Al Andalusen beren erlijioa praktikatzeko jarraitu zuten kristauak ziren.
- **Juduak** gutxiengoa ziren. Juduen auzoetan bizi ziren, gainerako biztanleetatik bereiz.

Landa eta hiria

Al Andaluseko biztanleriaren gehiengoa landan bizi zen.

Musulmanek **labore berriak** ekarri zituzten, hala nola alkatxofak, berenjenak eta arroza. Soroak ureztatzeko **noriak eta ubideak** eraiki zituzten.

Hiriak **harresiz inguratuta** zeuden; hiriko gobernadorea **alkazarrean** (jauregi gotortu batean) bizi zen. Erdialdean zokoa egoten zen. Gainera, hiri guztietan **meskitak** zeuden. (Ikusi bideoa [hemen](#))



Hiri andalustarra. A. Alkazarra. B. Harresiak. C. Zokoa. D. Meskita.

Kultura

Asko dira gure kulturaren mantendu ditugun bereizgarriak. Adibidez, jatorri arabiarra duten **hitz asko**, hala nola alkandora eta alkate, eta **leku-izenak**, hala nola Azagra eta Tafalla.

Erabiltzen ditugun **zenbakiak** ere arabiarrek ekarri zituzten. Haiei esker dugu zero zenbakia.